

## SEGMENTAZIOA

Hasiera batean gure negozioa arropa erosteko asmoa duten helduei zuzendua dago baina lehen aipatu bezala, guk eskaintzen dugun berritasuna eta gure berezitasuna, ikusmen urriko pertsonak ere beraien erosketak autonomiaz egiteko aukera eskaintzean datza. Guk salduko dugun arropa hainbat estilokoa egiten saiatuko gara; hala ere, eskainiko den gehiengoa modakoa izango da.

Gure merkatua honela segmentatuko genuke:

- Gizonezko helduak (ikusmen urrikoak barne)
- Emakumezko helduak (ikusmen urrikoak barne)
- Gizonezko gazteak (ikusmen urrikoak barne)
- Emakumezko gazteak (ikusmen urrikoak barne)
- Estilo propioa bilatzen duten pertsonak. (ikusmen urrikoak barne)

Gure publikoaren beharrak asetzeko gure enpresak sortuko du arropa, arropa sortzean eta ekoizteko momentuan, kontuan hartuko ditugu gure bezeroen nahiak... Horrela gure produktuen eksklusibitatea bermatuko dugu.